

# EGA 2018

# EGA 2018

# EGA 2018

## Dispositif de Certification de langue basque Épreuves de niveau C1

### Qu'est-ce que le Dispositif de Certification de Langue Basque ?

Le DCLB sert à vérifier et à valider le niveau de capacité linguistique en Euskara. Il est mis en place sur la base du Cadre Européen Commun de Référence (CECR) qui a prévu 6 niveaux : A1, A2, B1, B2, C1 et C2. Le niveau C1 est celui de l'utilisateur expérimenté et autonome d'une langue, juste avant celui de la maîtrise.

Comme les années précédentes, deux sessions d'épreuves de niveau C1 seront organisées en 2018.

Le Dispositif\* s'appuie sur un partenariat entre l'Office Public de la Langue Basque et le Département Interuniversitaire d'Études Basques (DIEB).

### Qu'est-ce que l'examen de niveau C1 ou EGA ?

Le niveau C1 est celui de l'utilisateur expérimenté et autonome d'une langue, précédant celui de la maîtrise excellente de la langue.

L'examen EGA mesure la compréhension à l'écrit et à l'oral, l'expression écrite et orale, ainsi que l'interaction entre deux locuteurs.

### Quelles compétences certifie-t-il ?

L'utilisateur autonome est capable de comprendre une grande gamme de textes longs et exigeants, ainsi que de saisir des significations implicites. Il est capable de s'exprimer spontanément et couramment, sans effort pour chercher ses mots. Il peut utiliser la langue de façon efficace et souple dans sa vie sociale, professionnelle, scolaire ou universitaire.

Il peut s'exprimer sur des sujets complexes de façon claire et bien structurée. Il doit maîtriser les mécanismes d'organisation, d'articulation et de cohésion de l'expression écrite et orale.

### À qui s'adressent ces épreuves ?

À toute personne sachant bien parler et écrire la langue basque, soit acquise comme langue maternelle avec alphabétisation par la suite, soit comme langue apprise à l'école ; soit enfin comme langue apprise par un adulte en formation post-scolaire.

\* Ce Dispositif ne comprend pas d'enseignement en langue basque.

## Non? Noiz? Nola?

### Lehen deialdia

Izen emateak:  
2018ko martxoaren 1etik 31ra  
[www.mintzaira.fr](http://www.mintzaira.fr)  
web gunean

Izen emate saria: 21 €

Ordainketak postaz egiteko epea:  
apirilaren 23a

Kandidatuen zerrenda:  
[www.mintzaira.fr](http://www.mintzaira.fr)  
web gunean maiatzaren 15ean

Azterketaren lehen zatia:  
**Maiatzaren 26an**  
**Baionako Fakultatean**  
Platanoen ibilbidea, 8  
8, All. des Platanes  
64100 Bayonne - Baiona

Idatzia gainditu dutenen zerrenda:  
[www.mintzaira.fr](http://www.mintzaira.fr)  
web gunean ekainaren 21ean

Ahozko azterketa:  
**Ekainaren 23an edota 30ean**  
**Baionako Fakultatean**  
Platanoen ibilbidea, 8  
8, All. des Platanes  
64100 Bayonne - Baiona

### Bigarren deialdia

Izen emateak:  
2018ko abuztuaren 29tik irailaren  
12ra  
[www.mintzaira.fr](http://www.mintzaira.fr)  
web gunean

Izen emate saria: 21 €

Ordainketak postaz egiteko epea:  
irailaren 19ra

Kandidatuen zerrenda:  
[www.mintzaira.fr](http://www.mintzaira.fr)  
web gunean irailaren 25ean

Azterketaren lehen zatia:  
**Irailaren 29an**  
**Baionako Fakultatean**  
Platanoen ibilbidea, 8  
8, All. des Platanes  
64100 Bayonne - Baiona

Idatzia gainditu dutenen zerrenda:  
[www.mintzaira.fr](http://www.mintzaira.fr)  
web gunean urriaren 17an

Ahozko azterketa:  
**Urriaren 20an**  
**Baionako Fakultatean**  
Platanoen ibilbidea, 8  
8, All. des Platanes  
64100 Bayonne - Baiona

Aurkezteko baldintzak:  
2018/12/31n berantenez 17 urte beteak izatea  
Frantziar Estatuan, sortu, bizi, lan egin edo ikastea

Beharrezkoak direnak:  
Nortasun agiri bat  
Idazteko tresnak ekartzea  
Tenorez heltzea!

## Euskara Gaitasun Egiaztapen Dispositiboa C1 mailako probak

### Zer da Euskara Gaitasun Egiaztapen Dispositiboa (EGED)?

Euskarazko hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko egina den dispositiboa da EGED, Europako Erreferentzia Marko Bateratuan (EEMB) oinarritua. Aitzineko urteetan bezala, C1 mailako Euskara Gaitasun Agiriaren azterketak antolatuko dira 2018an, bi azterketa deialdi irekiren bitartez. Dispositiboa\*, Euskararen Erakunde Publikoak, Euskal Ikasketen Unibertsitate arteko Departamenduarekin (UEID) eraman partaidetza-lanean oinarritua da.

### Zer da EGA edo C1 mailako azterketa?

EEMBak 6 maila ditu: A1, A2, B1, B2, C1 eta C2. C1 maila, hizkuntza baten erabiltzaile gaituarena da, hain zuzen adituen mailaren aitzinekoa. EGA azterketak neurtzen ditu mintzamina eta ahozko ulermena, irakurriaren eta idatziaren ulermena, baita bi pertsonen arteko elkarreragina ere.

### Zein gaitasun egiaztatzen du EGAK?

C1 maila erdiesten duena, gai izan behar da era askotako testu luzeak irakurtzeko eta orobat, testu horietan esanahi implizituak antzemateko. Badaki jartasunez eta bat-batean gauzak adierazten, erranmolde egokia aurkitzeko ahalegin handirik egiten ari denik sumatzen ez zaiolarik.


Hizkuntza malgutasunez eta eraginkortasunez erabil dezake, helburu sozial, akademiko eta profesionalekin. Testu argiak, ongi egituratuak eta xeheak ekoizteko gai da, baita gai konplexuei buruzkoak ere, testuaren antolaketa, artikulazio eta koherentzia-mekanismoak zuzen erabiliz idatzian eta ahozkoan.

### Nori zuzendua zaio EGA?

Euskara ongi dakien orori: izan dadin euskara etxean eta eskolan ikasi duena edo alfabetatua izateko bere baitarik landua duena, edota heldua izanki, gau-eskoletan ikasia duena.

\* Dispositiboak ez du euskara irakaskuntzarik eskaintzen.

# EGA 2018



**EGAREN azterketa-ereduak azterketa idatzia eta ahozko azterketa ditu. Biak gaintzea beharrezkoa da EGA lortzeko.**

## EGUNAK / PROBA KOPURUA

EGA azterketak, bi fasetan eta hiru probatan iragaten dira:

- Lehen egunean proba idatzia eta entzunaren ulermena.
- Bigarren egunean ahozko proba.

## AZTERKETAREN LEHEN EGUNA

I. Azterketa idatzia: 3 orenez

Bost ariketa ditu

1. Idazlana
2. Gutuna
3. Esaldiak berridaztea
4. Sinonimoak
5. Irakurriaren ulermena

II. Entzunaren ulermena: 30 minutu inguru

## AZTERKETAREN BIGARREN EGUNA

Mintzamenaren proba

Bi ariketa ditu

1. Gai baten ahozko azalpena
2. Bat-bateko elkarrizketa saioa

Kandidatuek 20 bat minutu izanen dute probaren lehen ariketa prestatzeko.

Aztertzaileen aitzinean, binaka eginen dute proba. Probaren iraupena 20 bat minutukoa da, orotara.

# EGA 2018

## Nolako azterketak? Zer neurtzen da?

### IDATZIA

#### 1. Idazlana

Bi gai eskainiko dira aukeran eta kandidatuak horietako bat garatu beharko du. Kandidatuak 250 hitz inguru idatzi beharko ditu.

Ariketa hau gaintzea baitezpadakoa da azterketa idatzia eskuratzeko.

30 punturen gain neurtua den idazlanaren ariketa hau gaintzeko, 15 puntu erdietsi behar dira gutienez.

#### 2. Gutuna

Bi gai eskainiko dira aukeran eta kandidatuak horietako bat gutun gisa idatzi beharko du. Kandidatuak 150 hitz inguru idatzi beharko ditu.

20 punturen gain neurtua den gutunaren ariketa hau gaintzeko, 10 puntu erdietsi behar dira gutienez.

Idazlana eta gutunaren kalifikaziorako ondoko alderdi hauek hartuko dira kontuan: **zuzentasuna, egokitasuna, diskurtsoaren koherentzia/kohesioa eta aberastasuna.**

#### 3. Esaldiak berridaztea

Emandako hamar esaldiren moldaketa egin beharko du kandidatuak:

a) Bost esalditan, esaldi baliokideak sortu beharko ditu beste egitura batzuk erabiliz, betiere esaldi bakarra osatuz.

Berridazketa bideratzeko eta gauzatzeko, elementu batzuk eskainiko zaizkio erreferentzia gisa.

b) Bost esalditan akatsak zuzendu beharko ditu.

Moldaketa oso eta zuzen bakoitzak puntu erdiko balioa baitu,

5 punturen gain neurtua den ariketa hau gaintzeko, 2,5 puntu erdietsi behar dira gutienez.

#### 4. Sinonimoak

Testu laburretan, azpimarratuak diren hamar hitzen baliokide egokiak eman beharko ditu kandidatuak. Erantzun zuzen bakoitzak puntu erdiko balioa baitu, 5 punturen gain neurtua den ariketa hau gaintzeko, 2,5 puntu erdietsi behar dira gutienez\*.

#### 5. Irakurriaren ulermena

Testu batzuk eskainiko zaizkio kandidatuari, horiei buruzko galderei erantzun diezaien.

10 punturen gain neurtua den ariketa hau gaintzeko, 5 puntu erdietsi behar dira gutienez. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko\*.

**Euskaltzaindiaren arauak dira zuzentasunaren oinarrian.**

\* Sinonimoen eta esaldiak berridazteko ariketaren kalifikazioak bilduko dira eta bietatik batean 2,5 puntu lortu ez bada ere, bien artean gutienez 6 puntu lortuz, gaintutzat emanen dira. Ariketa hau gaintzea baitezpadakoa da, azterketa idatzia eskuratzeko.

# EGA 2018

### AHOZKOA

#### 1. Entzunaren ulermena

Azterketa idatziaren egunean eginen da ariketa hau.

Grabaketa zatiak entzuten ditu kandidatuak. Zati bakoitzari buruz galderak eginen zaizkio eta erantzun zuzena hautatu beharko du, aukera anitzeko moldean emanen zaizkion erantzunen artean. 5 punturen gain neurtua den ariketa hau gaintzeko, 2,5 puntu erdietsi behar dira gutienez. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.

#### 2. Mintzamina: bi aztertzailez osatu epaimahaiak, kandidatuak binaka entzuten ditu

a) Gai baten ahozko azalpena.

Kandidatu bakoitzari gai desberdin bat emanen zaio idatziz, hoge minutuz prestatzeko. Kandidatu bakoitzak bere aldi, egokitu zaien informazioaren bost bat minutuko azalpena eman beharko du, ondoko elementuak kontuan hartuz:

- testuaren aurkezpen txukuna egitea,
- mamiaren puntu funtsezkoenak deskribatzea,
- iritzi edo gaiaren hedadura posiblea proposatzea kandidatuak bere baitatik. Kandidatu bakoitzak frogatu beharko du ere besteak egin duen aurkezpena ulertu duela, aztertzaileak egiten dion galdera bati erantzunez.

b) Bat-bateko elkarrizketa saioa.

Aztertzaileek gai bat eskainiko diete kandidatuari. Kandidatu bakoitzak gai horri buruzko ikusmolde bat garatu beharko du. Kandidatuak elkarrizketan ariko dira, emana zaien ikuspuntuaren alde eginez. Elkarrizketa edo eztabaida bideratzeko edota orekatzeko, aztertzaileek parte har dezakete. Kandidatuak, bien artean, guti gora behera zazpi minutuz arituko dira.

Proba hau gaintzea baitezpadakoa da ahozko azterketa eskuratzeko. Ondotik, lehen eguneko "Ahozko ulermena" rekin batez bestekoa eginen da.

### EGA edo C1 mailako euskara agiriaren azterketa: Proben puntuazioa

Azterketa - probak	Ariketa	Gehienez lor daitezkeen puntuak	Gaintzeko gutxienez lortu behar diren puntuak
Proba idatziak	1. Idazlana	30	15
	2. Gutuna	10	
	3. a) Esaldiak berridatzi (5 esaldi)	2,5	2,5 bakoitzean edo 6 bien artean
	b) Esaldiak zuzendu (5 esaldi)	2,5	
	4. Sinonimoak (10 baliokide)	5	
5. Irakurriaren ulermena	10		
	<b>Idatzia orotara</b>	<b>60</b>	<b>30/31</b>
Ahozko probak			
	<b>Entzumena</b>	Entzunaren ulermen ariketa	5
<b>Mintzamina</b>	Ahozko ariketak: azalpena + elkarrizketa	20	10
	<b>Ahozkoa orotara:</b> (Entzunaren ulermena + mintzamina) x2	<b>50</b>	<b>25</b>
<b>Azterketa orotara</b>		<b>110</b>	<b>55/56</b>

**Azken emaitza Bikain/Ongi/Aski ongi/gaintua edo Ez gaintua izanen da. Deialdi bateko idatziko kalifikazioak, urte bereko bigarren deialdirako soilik mantenduko dira.**